


telebista ♦ irratia **gaurko programazioa**

**Eguberri kontzertua**

ETB1 • 18:55etan

Donostiako Orfeoia gabon kantak eskainiko ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak lagunduta, eta ETBk emango du gaur arratsaldean.



**gaurko filmak** / Ane Muñoz

■ **LAS SANDALIAS DEL PESCADOR.**

Morris Westen eleberri arrakastatsuen egokitzapen zinematografiko garesti hau luxuzko izarrekin filmatu zuten. Orain, zaharkituxea geratu da. Anthony Quinnek Aita Santuarena egiten du, eta Laurence Olivier eta beste aurpegi ezagunak ditu alboan. Zozo samarra da, baina kalitatez zuzena dela aitor dezakegu.

■ **EL CIELO PUEDE ESPERAR.**

Warren Beatty aktore erakarriaren jarriztaileek tarte atsegin eta entretenigarria igaro dezakete abentura umoretsu arin honekin. Izan ere, hark protagonizatu eta zuzendu baitzuen. Emakumezko rol nagusia, berriz, Julie Christie eztsuak antzezten du. Maiz pantailaratua izan den formula bati eusten dio; alegia, kiro-lari gazte bat istripu baten ondorioz hil, eta beste pertsona baten azalean berpiztuko da.

■ **DUELO EN SILVER CREEK.**

Don Siegelek 50eko hamarkadan sinatutako western txiki hau, ez da zuzendari horren ondorengo filmen mailara iristen, baina gutxienez zuzena da eta nahikoa entretenigarria, halaber. Aktore talde erakarri biltzen du: rol garrantzitsuenak, adibidez, Audie Murphy eta jeneroa hark bezain ederki ezagutzen duen Lee Marvinnek antzezten dituzte.

■ **OPERACION COWBOY.**


Honakoa ere ez da maila handiko filma, baina batik bat etxeko txikiak entretenitzeko egin dela kontuan izanik, onargarria da. Disney Etxekoek ekoiztu zuten, kameraren parean Robert Taylor eta Lilli Palmer aktore ezagunak bilduz eta zuzendaritza Arthur Hillerren esku utziz. Bigarren Mundu Gerraren amaieran girotutako gerra abentura txikia da.

*Capra eta Stewart, bizitzaren omenez*

■ **QUE BELLO ES VIVIR.** Eguberriak ganean dauzkagula, Capra mai-sua eta James Stewart zintzoa bisitan datozkigu, urtero bezala, zuri-beltzeko zeluloide puska zoragarri, goxo eta hunkigarri hau berriro ikustera gonbidatzeko. Honez gero ez du aurkezpenik behar: munduko gizaki zintzoena ezagutuko dugu lehenik, eta haren krisia gainditzeko zerutik jeitsia den aingeru zaindaria ondoren. Argumentua berez nahikoa moralista izanik ere, Caprak zinta eder bat egin zuen.

<b>Les merveilleux contes de Grimm</b> ♦♦ 1962, H. Levin & G. Pal, 130 m. 08:45 C+(f)	<b>Laurel et Hardy au far west</b> ♦♦ 1937, James W. Home, 65 m. 22:45 Arte
<b>Duelo en Silver Creek</b> ♦♦♦ 1952, Don Siegel, 77 m. 11:00 La2	<b>El espíritu de la Navidad</b> ♦♦ 1994, George Zaccender, 86 m. 23:15 A3
<b>Le concierge</b> ♦♦ 1973, Jean Girault, 90 m. 15:20 F3	<b>Johann S. en douze citations</b> ♦♦♦ 1999, Percy Adlon, 65 m. 00:10 Arte
<b>Don Camillo</b> ♦♦ 1983, Terence Hill, 125 m. 15:25 F2	<b>Las sandalias del pescador</b> ♦♦♦ 1968, Michael Anderson, 188 m. 00:50 ETB2
<b>En busca del Valle Encantado 5</b> ♦♦ 1998, John Hess, 70 m. 15:30 C+(e)	<b>El cielo puede esperar</b> ♦♦♦ 1978, W. Beatty & B. Henry, 95 m. 01:30 T5
<b>La leyenda de Rubi Silver</b> ♦♦ 1996, Charles Wilkinson, 89 m. 16:15 T5	<b>Palace</b> ♦♦ 1995, Tricycle, 90 m. 01:45 La2
<b>El mago de Oz</b> ♦♦♦ 1939, Victor Fleming, 97 m. 17:15 ETB2	<b>¡Que bello es vivir!</b> ♦♦♦♦ 1946, Frank Capra, 130 m. 00:55, 04:55 A3
<b>Chérie, j'ai rétréci les gosses</b> ♦♦ 1989, Joe Johnston, 95 m. 17:35 F1	<b>Fletch, el Camaleón</b> ♦♦ 1985, Michael Ritchie, 94 m. 02:15 TVE1
<b>La bande a picsou</b> ♦♦ 1990, Disney, 75 m. 18:30 M6	<b>Cuento de Navidad</b> ♦♦ 1951, B.D. Hurst, 92 m. 03:15 A3
<b>Robin des Bois</b> ♦♦ 1991, John Irvin, 115 m. 20:55 M6	<b>Retorno a la verdad</b> ♦♦ 1956, Antonio del Amo, 83 m. 03:15 La2
<b>La espada mágica</b> ♦♦♦ 1998, Frederick Du Chau, 83 m. 22:00 C+(e)	<b>La hija de alguien</b> ♦♦ 1992, Joseph Sargent, 90 m. 03:30 T5
<b>El príncipe de Zamunda</b> ♦♦ 1988, John Landis, 111 m. 22:00 T5	<b>Canción triste de...</b> ♦♦ 1988, Jose Truchado, 80 m. 04:15 TVE1
<b>Primary colors</b> ♦♦ 1997, Mike Nichols, 140 m. 22:35 C+(f)	<b>Operación Cowboy</b> ♦♦ 1963, Arthur Hiller, 86 m. 04:35 La2

♦ TXARRA ♦♦ ESKASA ♦♦♦ BALEKOA ♦♦♦♦ ONA ♦♦♦♦♦ BIKAINA



Warren Beattyk zuzendu eta interpretatu zuen *El cielo puede esperar* filma.

**ETB 1**

- 06:50: Bertatik Bertara.
- 07:20: Euskal Herritik.
- 07:50: Agur, Olentzero, Agur.
- 09:10: Superbat.  
Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Superheroiak', 'Sinbad Gaztea', 'Potto-kiak', 'Ninja dorkokak', 'Tom eta Jerry mutikotan', 'Yogi Yogi show', 'Sable zalduna eta izarretako sheriffak', 'Martitzeko motosaguak', 'Bugs Bunny', Gabon gaua'.
- 12:55: Iparraldearen Orena.
- 13:05: Harriketarrak.
- 13:30: Gaur egun.
- 14:20: Gabonetako menua.  
Josu Mendizabalaren eskutik.
- 14:45: Txirrita. Marrazki bizidunak.
- 14:55: Galdestreet.
- 15:30: Egin kontu.
- 17:05: Bidaide. Dokumentalak.
- 17:50: Olentzaro. Gontzal Mendibilen musika-lana.
- 18:55: Eguberri kontzertua.  
Donostiako Orfeoia gabon kantak eskainiko ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak lagunduta.
- 20:28: Gaur Egun.
- 21:05: Bertatik Bertara.
- 22:15: Gabon kantak.
- 23:30: Hator kantari hator.
- 01:30: Gabonetako aintza.  
Jose Carrerasek gabon kantak abestuko ditu.
- 02:30: Charlotte Church.
- 03:15: Mendeari begira.
- 04:15: Galdestreet.
- 04:40: Egin kontu.
- 06:10: Ikusgela.

**ETB 2**

- 08:20: Del pais de los vascos.
- 08:50: Herri musika sorta.
- 09:05: Sustrai.
- 09:30: El Punto.  
Gonbidatua: Iñaki Anasagasti.
- 10:00: Forum.  
Gonbidatuak: Celina eta Adelia Ibañez.
- 10:30: Señorío de Larea. Telesaila.
- 10:55: Esta es mi gente.
- 11:45: La cruda realidad. Telesaila.
- 12:05: Maité. Telesaila.
- 13:00: La cocina de Pedro Subijana.
- 13:15: La vida con Roger. Telesaila.
- 13:45: Loco por ti. Telesaila.
- 14:10: Informativo territorial.
- 14:28: Teleberri.
- 15:45: Lo que faltaba.
- 17:15: Cine Navidad.  
**El mago de Oz.**  
Zuzendaria: Victor Fleming. Aktoreak: Judy Garland, Frank Morgan. 1939.
- 19:05: Esta es mi gente.
- 20:25: Da la talla en la pantalla.
- 20:58: Teleberri.
- 21:30: Feliz Navidad, Mr. Bean.
- 22:00: Julio Sabala en Donostia.
- 23:10: Zoombados Navidad.
- 00:50: Zinema.  
**Las sandalias del pescador.**  
Zuzendaria: Michael Anderson. Aktoreak: Anthony Quinn, Laurence Olivier. 1968.
- 04:00: Lo que faltaba.
- 06:05: Forum.
- 06:35: Amaiera.

**irratia** ♦

**Radio Euskadi.** Gabon gaueko elkartasun saio berezi bat eskainiko du Radio Euskadik. Gauerditik eta goizeko 04:00ak arte, *No estamos solos* zuzeneko emanaldia zuzendu eta aurkeztuko du Floren Torrelledok. Gaurkoa bezalako gau berezi batean, bakarrik dauden pertsonen gerturatze-ko saioa da, eta pobreen hainbat zentror-ekin konexioak egingo dituzte. Elkartasun eta zorion deiak egingo dira, baita opariak banatu ere.

**Segura Irratia.** *Hamarhamairu* magazinaren barruan, umeei zuzendutako tartea izango da gaur goizean. Umeei kantatu, txistek kontatu edo beste edozer egin ahal izango dute, eta sariak ere izango dira. Arratsaldean, Gabonak direla eta, saio berezia entzun ahal izango da (16:00etatik 20:00etara). Jende ezagun ugari hartuko du parte saio horretan: Imanol Lazkano eta Jokin Sorozabal bertsolariak, Tapia eta Leturia eta Mikel Markez. Gainera, Iñigo

Perurena umorista imitatzailea bertan izango da, eta betiko moduan John Toshack, Aita Santua eta beste hainbat pertsonaia ezagun imitatuko ditu.

**Euskadi Irratia.** 16:00etan hasiko da *Lauretan Babel* irratsaioa, eta 18:00etatik aurrera gabon giroa nagusituko da Euskadi Irratian. Gabon kantak, elkarriketak eta gabon ohitura zaharren inguruan ari-tuko dira 21:00etan emisioa amaitu arte.

**Katxarro**  
SAGARDOTEGIA  
**Urte osoan irekita**  
94 658 29 67 - ELORRIO